

DONOSTIAKO UDALA

2016

**Udal aurrekontuen azterketa
genero ikuspegitik**



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

**Berdintasun bulegoa
Negociado de Igualdad**



Aurkibidea

1. Lege esparrua	4
2. Genero ikuspegidun aurrekontuak	5
3. Donostiako Udalak aurrekontuetan genero ikuspegia sartzeko egin duen bidea	6
4. 2016Ko txostena	8
5. Aurrekontu orokorrak	9
5.1. 2016Ko inbertsioak	15
6. Aztertutako programak	17
6.1. Gizartea Babesteko eta Sustatzeko Jarduerak	17
6.1.1. Berdintasuna	17
6.1.2. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza	20
6.1.3. Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	22
6.1.4. Prebentzioa, haurtzarora eta familia	23
6.1.5. Adineko pertsonen sustapena	24
6.1.6. Adinekoentzako egoitzak	26
6.1.7. Babespeko apartamentuak	27
6.1.8. Etxez etxeko laguntza	28
6.1.9. Gizarte larrialdietarako laguntzak	31
6.1.10. Gizarte Abegi Etxea	32
6.1.11. Gizarteratzea	33



6.2. Lehenetsuneko ondasun publikoen ekoizpena	35
6.2.1. Ikastetxeen funtzionamendua	35
6.2.2. Hezkuntza programak	36
6.2.3. Giza eskubideak	37
6.2.4. Kultur aniztasuna	38
6.2.5. Donostia Kultura	40
6.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak	44
6.3.1. Hiri mugikortasuna	44
6.4. Jarduera ekonomikoak	48
6.4.1. Proiektuak eta obrak	48
6.4.2. DBUS	48
6.5. Jarduera orokorrak	49
6.5.1. Herritarren partaidetza	49

7. Genero eragina sakonago ebaluatzeko irizpideak	51
--	-----------



1. Lege esparrua

Udal araudia

- » Gobernu Batzarrak 2014ko apirilaren 25ean onartutako Donostiako Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean jasotako 1.2. neurria: <<Donostiako Udalaren Aurrekontu orokorrak genero ikuspegitik lantzea eta gauzatzea >>.

Autonomia Erkidegoko araudia

- » 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. 14. artikulua. <<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.
- » EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA. Gobernantza hobetzeko G9 neurria: Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
 - » G9.2 Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea
 - » G9.3 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea.



2. Genero ikuspegidun aurrekontuak

Aurrekontu publikoek eragina dute jende talde bakoitzak (emakumeak eta gizonak, migratzaileak, adinekoak, gazteak eta haurrak) eskura dituen baliabideetan. Genero ikuspegia duten aurrekontuek bi helburu dituzte:

- 1) Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan zer eragin duten ezagutzea, aintzat hartuta, ahal den neurrian, beste diskriminazio ardatz batzuk ere, hala nola adina, migrazio egoera edo errentaren maila.
- 2) berdintasuna sustatzeko tresna izatea.



3. Donostiako Udalak aurrekontuetan genero ikuspegia sartzeko egin duen bidea

Txosten hau 2013an abiarazitako prozesu baten barruan kokatuta dago, eta prozesu horren xedea da pixkanaka genero ikuspegia sartzea aurrekontuen zikloan. Ez dugu esan nahi prozesua abiarazi aurretik aurrekontuak ez zuenik inolako genero ikuspeirik, ezta orain erabat barneratua duenik ere; pixkanaka egin beharreko prozesua da, eta lehenengo dagoeneko lortutakoa ikusarazi behar dugu, gerora aurrerapausoak egiten jarraitzeko, betiere indarrean dagoen Berdintasun Planarekin oso lotuta.

Aurrekontu genero ikuspegidunak prestatzeko prozesua 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasun Bulegoak lan jardunaldi bat antolatu zuenean Andaluziako Juntak gai horretan zuen esperientzia ezagutzeko. Jardunaldi hartan Udaleko langile politikoek eta zuzendariak parte hartu zuten, baita Programazio, Azterlan eta Aurrekontu unitateko teknikariek eta aurrekontua osatzeko ardura zuten zenbait sailtako teknikariek ere.

2013ko uztailan, Ogasun Bulegoak eta Berdintasun Bulegoak metodologia bat adostu zuten. Bertan, aintzat hartzen ziren Andaluziako esperientziako elementu batzuk, baina Donostiako Udalaren neurria, konpetentzietara eta denboretara egokitzen saiatuta.

Handik aurrera, aurrekontu programei eta haiei lotutako jardueri eta langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Yolanda Yubeto eta Mertxe Larrañaga Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen aholkuak aintzat hartuta.

2014ko otsailan, "Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena" argitaratu zuten (aurrerantzean, 2014ko Txostena), ordurako Udalbatzak onartua, eta horrek ezarri zituen oinarri metodologikoa eta gomendioei jarraituta eman beharreko hurrengo urratsak. Horrez gainera, alde aurretik jasotako informazioa aztertuta, prozesuan sakon landu beharreko lehentasunezko arloak zehaztu zituen, honako hauek:

- » Hiri azpiegiturak eta zerbitzuak
- » Mugikortasuna
- » Gizarte Ongizatea
- » Gizarte Sustapena
- » Herritarren partaidetza



» Donostia Kultura

2014. urtean, gobernu taldeak aurrekontuen genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta lanerako eta prestakuntzarako saio bat egin zen aipatutako alorrekin eta Ogasuneko eta berdintasuneko teknikariek.

2014ko abenduan, “Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik - 2015” txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2015eko aurrekontuen gainean.



4. 2016Ko txostena

Txosten hau Programazio, Azterlan eta Aurrekontu unitatearekin batera egindako lanaren ondorioa da.

2015eko txostenarekin alderatuz, bi dira aldaketa nagusiak:

- » Udal aurrekontuak soilik aztertu dira txosten honetan. Plantillaren eta kontratazioaren gaineko azterketa egin beharrean, txosten espezifikoak egin dira.
- » Aurrekontu programen arabera egituratu da txostena, atalen edo zuzendaritzen arabera azterketa egin beharrean.



5. Aurrekontu orokorrak

Txosten hau atxikia daraman aurrekontu proposamenaren arabera, Donostiako Udalak 378.395.662,21 euro kudeatuko ditu 2016an, iaz baino 19.902.399,13 milioi gehiago; beraz, %5,55 handitu da udal aurrekontua, 2015ekoarekin alderatuta.

Gastu helburuak aintzat hartuta, gehien handitu direnak, %8,34 *oinarrizko zerbitzu publikoak* (herritarren segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, ura eta saneamendua, hondakinak eta abar). Bigarren eta hirugarren, % 4,99 *lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena* (osasuna, hezkuntza eta kultura) eta % 3,19 *gizartea babesteko eta sustatzeko jarduerak* (Gizarte Zerbitzuak eta berdintasuna), biak ere zaintzari eta bizitzaren sostengagarritasunari oso lotuta dauden helburuak eta genero ikuspegitik giltzarri direnak.

Gastu arloa	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Oinarrizko zerbitzu publikoak	147.876.782,18€	%41,25	160.216.105,82€	%42,34	12.339.323,64€	%8,34
Babes eta sustapen sozialeko jarduketa	25.298.229,95€	%7,06	26.105.568,23€	%6,90	807.338,28€	%3,19
Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	77.756.707,63€	%21,69	81.637.757,57€	%21,57	3.881.049,94€	%4,99
Jarduketa ekonomikoak	61.197.251,80€	%17,07	62.842.727,70€	%16,61	1.645.475,90€	%2,69
Jarduketa orokorra	30.675.571,69€	%8,56	31.353.937,54€	%8,35	678.365,85€	%2,21
Zor publikoa	15.688.719,83€	%4,38	16.239.565,35€	%4,29	550.845,52€	%3,51

Gastu politikak kontuan hartuta, *Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk* (%45,84) eta *Etxebizitza eta hirigintza* (%21,29) ataletan izandako igoera nabarmentzen da.

Gastu politikak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK						
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	44.068.738,47€	%12,29	46.333.846,62€	%12,24	2.265.108,15€	%5,14
Etxebizitza eta Hirigintza	41.679.071,07€	%11,63	50.551.505,47€	%13,36	8.872.434,40€	%21,29
Komunitate-Ongizatea	50.858.817,66€	%14,19	52.019.416,74€	%13,75	1.160.599,08€	%2,28
Ingurumena	11.270.154,98€	%3,14	11.311.336,99€	%2,99	41.182,01€	%0,37
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA						
Erretiro pentsioak	48.000,00€	%0,01	38.000,00€	%0,01	-10.000,00€	-%20,83
Enplegatuen aldeko beste prestazio	628.685,44€	%0,18	916.846,05€	%0,24	288.160,61€	%45,84
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	24.621.544,51€	%6,87	25.150.722,18€	%6,65	529.177,67€	%2,15



Gastu politikak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA						
Osasuna	2.233.455,83€	%0,62	2.117.946,70€	%0,56	-115.509,13€	-%5,17
Hezkuntza	11.711.801,35€	%3,27	12.596.735,00€	%3,33	884.933,65€	%7,56
Kultura	45.270.873,61€	%12,63	47.940.765,01€	%12,67	2.669.891,40€	%5,90
Kirola	18.540.576,84€	%5,17	18.982.310,86€	%5,02	441.734,02€	%2,38
JARDUKETA EKONOMIKOAK						
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	15.784.435,29€	%4,40	16.585.977,96€	%4,38	801.542,67€	%5,08
Garraio publikoa	34.202.324,63€	%9,54	35.472.864,43€	%9,37	1.270.539,80€	%3,71
Azpiegiturak	11.133.515,16€	%3,11	10.705.609,31€	%2,83	-427.905,85€	-%3,84
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	76.976,72€	%0,02	78.276,00€	%0,02	1.299,28€	%1,69
JARDUKETA OROKORRA						
Gobernu organoak	4.304.195,50€	%1,20	4.462.404,49€	%1,18	158.208,99€	%3,68
Administrazio orokorra	18.811.956,59€	%5,24	19.361.390,15€	%5,12	549.433,56€	%2,92
Finantza eta zerga administrazioa	7.559.419,60€	%2,11	7.530.142,90€	%2,00	-29.276,70€	-%0,39
ZOR PUBLIKOA						
Zor publikoa	15.688.719,83€	%4,38	16.239.565,35€	%4,29	550.845,52€	%3,51
GUZTIRA	358.493.263,08€	%100	378.395.662,21€	%100	19.902.399,13€	%5,55

Banakatuago, **aurrekontu programen** arabera izandako aldaketak jaso ditugu.

Aurrekontu programak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	147.876.782,18€	%41,25	160.216.105,82€	%42,34	12.339.323,64€	%8,34
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	44.068.738,47€	%12,29	46.333.846,62€	%12,24	2.265.108,15€	%5,14
<i>Udaltzaingoa</i>	21.752.681,93€	%6,07	22.480.533,15€	%5,94	727.851,22€	%3,35
<i>Zirkulazioaren eta aparkamenduaren antolamendua</i>	6.098.833,30€	%1,70	6.123.317,91€	%1,62	24.484,61€	%0,40
<i>Eskailerak, arrapalak eta igogailuak</i>	306.800,00€	%0,08	1.049.761,00€	%0,28	742.961,00€	%242,16
<i>Hiri mugikortasuna</i>	8.414.590,65€	%2,35	9.034.221,83€	%2,39	619.631,18€	%7,36
<i>Herri-babesa</i>	180.600,99€	%0,05	149.369,15€	%0,04	-31.231,84€	-%17,29
<i>Prebentzio eta su-itzaltze zerbitzua, eta sorospena</i>	7.315.231,60€	%2,04	7.496.643,58€	%1,98	181.411,98€	%2,48
Etxebizitza eta Hirigintza	41.679.071,07€	%11,63	50.551.505,47€	%13,36	8.872.434,40€	%21,29
<i>Hirigintza</i>	18.026.205,79€	%5,03	22.633.596,86€	%5,98	4.607.391,07€	%25,56
<i>Empresa de gestión urbanística</i>	248.586,09€	%0,07	- €	%0,00	-248.586,09€	-%100,00
<i>Etxebizitza</i>	14.381.649,67€	%4,01	17.902.609,09€	%4,73	3.520.959,42€	%24,48



Aurrekontu programak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
<i>Eraikuntzen birgaitzea</i>	1.750.000,00€	%0,49	2.150.000,00€	%0,57	400.000,00€	%22,86
<i>Bide publikoak</i>	2.744.029,37€	%0,77	3.050.560,29€	%0,81	306.530,92€	%11,17
<i>Solaketa eta afaltatzea</i>	4.528.600,15€	%1,26	4.814.739,23€	%1,28	286.139,08€	%6,32
Komunitate-ongizatea	50.858.817,66€	%14,19	52.019.416,74€	%13,75	1.160.599,08€	%2,28
<i>Saneamendua</i>	6.242.747,74€	%1,74	5.467.874,99€	%1,45	-774.872,75€	-%12,41
<i>Ura</i>	2.804.021,96€	%0,78	2.701.668,88€	%0,71	-102.353,08€	-%3,65
<i>Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa</i>	788.212,70€	%0,22	744.394,75€	%0,20	-43.817,95€	-%5,56
<i>Zabor bilketa</i>	6.659.534,18€	%1,86	6.586.622,10€	%1,74	-72.912,08€	-%1,09
<i>Hondakinen kudeaketa: San Marko</i>	2.395.512,70€	%0,67	2.409.952,05€	%0,64	14.439,35€	%0,60
<i>Hondakinen tratatzea: San Marko</i>	7.791.476,48€	%2,17	8.613.365,10€	%2,28	821.888,62€	%10,55
<i>Bide eta Etxaurren garbiketa</i>	12.351.758,19€	%3,45	13.873.658,45€	%3,67	1.521.900,26€	%12,32
<i>Polloe</i>	1.392.729,22€	%0,39	1.491.972,05€	%0,39	99.242,83€	%7,13
<i>Herri argiteria</i>	4.444.109,06€	%1,24	4.084.908,37€	%1,08	-359.200,69€	-%8,08
<i>Saneamendua eta arazketa: Añarbe</i>	5.988.715,43€	%1,67	6.045.000,00€	%1,60	56.284,57€	%0,94
Ingurumena	11.270.154,98€	%3,14	11.311.336,99€	%2,99	41.182,01€	%0,37
<i>Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa</i>	342.073,26€	%0,09	380.195,81€	%0,10	38.122,55€	%11,14
<i>Parke eta lorategiak</i>	5.924.762,03€	%1,65	5.889.909,15€	%1,56	-34.852,88€	-%0,59
<i>Artikutza</i>	909.745,55€	%0,25	949.682,38€	%0,25	39.936,83€	%4,39
<i>Cristina Enea</i>	460.000,00€	%0,13	520.000,00€	%0,14	60.000,00€	%13,04
<i>Iraunkortasuna</i>	1.099.784,90€	%0,31	1.080.561,76€	%0,29	-19.223,14€	-%1,75
<i>Hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa</i>	270.989,17€	%0,08	229.290,61€	%0,06	-41.698,56€	-%15,39
<i>Hondartzak</i>	2.262.800,07€	%0,63	2.261.697,28€	%0,60	-1.102,79€	-%0,05
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK	25.298.229,95€	%7,06	26.105.568,23€	%6,90	807.338,28€	%3,19
Erretiro-pentsioak	48.000,00€	%0,01	38.000,00€	%0,01	-10.000,00€	-%20,83
<i>Klase pasiboak</i>	48.000,00€	%0,01	38.000,00€	%0,01	-10.000,00€	-%20,83
Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk	628.685,44€	%0,18	916.846,05€	%0,24	288.160,61€	%45,84
<i>Aldez-aurretik erretiratzeko sariak</i>	628.685,44€	%0,18	916.846,05€	%0,24	288.160,61€	%45,84
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte- sustapena	24.621.544,51€	%6,87	25.150.722,18€	%6,65	529.177,67€	%2,15
<i>Gizarte-ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa</i>	1.036.278,63€	%0,29	727.653,87€	%0,19	-308.624,76€	-%29,78
<i>Gizarte zerbitzuen zentroak</i>	2.914.446,20€	%0,81	3.380.614,48€	%0,89	466.168,28€	%16,00
<i>Lankidetzeta eta garapenerako hezakuntza</i>	1.370.847,61€	%0,38	1.379.800,13€	%0,36	8.952,52€	%0,65



Aurrekontu programak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
<i>Apartamentu tutelatuak</i>	1.473.517,38€	%0,41	1.469.166,98€	%0,39	-4.350,40€	-%0,30
<i>Gizarte abegi etxea</i>	1.282.336,26€	%0,36	1.227.262,84€	%0,32	-55.073,42€	-%4,29
<i>Gizarteratzea</i>	2.813.593,08€	%0,79	2.903.564,04€	%0,77	89.970,96€	%3,20
<i>Adin txikikoen prebentzioa eta familia</i>	2.760.387,18€	%0,77	2.837.671,85€	%0,75	77.284,67€	%2,80
<i>Adineko pertsonen sustapena</i>	358.332,83€	%0,10	351.956,01€	%0,09	-6.376,82€	-%1,78
<i>Zaharren egoitzak</i>	884.112,88€	%0,25	844.112,88€	%0,22	-40.000,00€	-%4,52
<i>Etxez-etxeko laguntza</i>	7.539.479,23€	%2,10	7.553.882,25€	%2,00	14.403,02€	%0,19
<i>Gizarte larrialdietarako laguntzak</i>	1.469.432,51€	%0,41	1.769.432,10€	%0,47	299.999,59€	%20,42
<i>Berdintasuna</i>	718.780,72€	%0,20	705.604,75€	%0,19	-13.175,97€	-%1,83
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	77.756.707,63€	%21,69	81.637.757,57€	%21,57	3.881.049,94€	%4,99
Osasuna	2.233.455,83€	%0,62	2.117.946,70€	%0,56	-115.509,13€	-%5,17
<i>Komunak</i>	550.467,80€	%0,15	384.700,00€	%0,10	-165.767,80€	-%30,11
<i>Eskola osasuna</i>	167.618,81€	%0,05	173.415,28€	%0,04	5.796,47€	%3,46
<i>Osasun publikoa eta animalien ongizatea</i>	665.609,02€	%0,18	708.247,22€	%0,19	42.638,20€	%6,41
<i>Sorospen etxea</i>	252.604,20€	%0,07	255.404,20€	%0,07	2.800,00€	%1,11
<i>La Perla bainuetxea</i>	597.156,00€	%0,17	596.180,00€	%0,16	-976,00€	-%0,16
Hezkuntza	11.711.801,35€	%3,27	12.596.735,00€	%3,33	884.933,65€	%7,56
<i>Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa</i>	696.002,19€	%0,19	618.621,02€	%0,17	-77.381,17€	-%11,12
<i>Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua</i>	6.681.446,20€	%1,86	6.695.040,35€	%1,77	13.594,15€	%0,20
<i>Udalaren musika eta dantza eskola</i>	3.138.624,38€	%0,88	4.116.049,32€	%1,09	977.424,94€	%31,14
<i>Heziketarako programak</i>	219.376,38€	%0,06	223.329,03€	%0,06	3.952,65€	%1,80
<i>Giza eskubideak</i>	686.512,38€	%0,19	599.826,22€	%0,16	-86.686,16€	-%12,63
<i>Kultur aniztasuna</i>	289.839,82€	%0,08	343.869,06€	%0,09	54.029,24€	%18,64
Kultura	45.270.873,61€	%12,63	47.940.765,01€	%12,67	2.669.891,40€	%5,90
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	27.242.879,43€	%7,60	27.696.407,22€	%7,34	453.527,79€	%1,66
<i>Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)</i>	127.075,58€	%0,04	137.220,32€	%0,04	10.144,74€	%7,98
<i>Tabakalera</i>	3.985.000,00€	%1,11	3.978.085,00€	%1,05	-6.915,00€	-%0,17
<i>2016 Hiriburutza</i>	6.179.308,69€	%1,72	8.481.224,69€	%2,24	2.301.916,00€	%37,25
<i>Kultura: sustatzea eta bultzatzea</i>	1.440.000,00€	%0,40	1.470.000,00€	%0,39	30.000,00€	%2,08
<i>Udalaren musik-a eta datza- eskola (Txistulariak eta Emusik2016)</i>	576.395,05€	%0,16	539.274,06€	%0,14	-37.120,99€	-%6,44
<i>Euskara</i>	2.504.762,02€	%0,70	2.542.488,90€	%0,67	37.726,88€	%1,51
<i>Zaharren etxeak</i>	1.254.698,35€	%0,35	1.142.986,50€	%0,30	-111.711,85€	-%8,90
<i>Gazteria</i>	1.960.754,49€	%0,55	1.953.078,32€	%0,52	-7.676,17€	-%0,39



Aurrekontu programak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Kirola	18.540.576,84€	%5,17	18.982.310,86€	%5,02	441.734,02€	%2,38
<i>Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa</i>	3.049.431,96€	%0,85	2.952.540,55€	%0,78	-96.891,41€	-%3,18
<i>Kirolak: sustatzea eta bultzatzea</i>	704.650,00€	%0,20	18.500,00€	%0,00	-686.150,00€	-%97,37
<i>Donostia Kirola</i>	1.950.269,71€	%0,54	2.604.061,93€	%0,69	653.792,22€	%33,52
<i>Kirol instalakuntzak</i>	100.000,00€	%0,03	3.145.000,00€	%0,83	3.045.000,00€	%3045,00
<i>Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)</i>	8.796.027,34€	%2,45	9.288.077,63€	%2,45	492.050,29€	%5,59
<i>Anoeta Kiroldegia</i>	3.940.197,83€	%1,10	974.130,75€	%0,26	-2.966.067,08€	-%75,28
JARDUKETA EKONOMIKOAK	61.197.251,80€	%17,07	62.842.727,70€	%16,61	1.645.475,90€	%2,69
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	15.784.435,29€	%4,40	16.585.977,96€	%4,38	801.542,67€	%5,08
<i>Azokak</i>	15.450,00€	%0,00	8.450,00€	%0,00	-7.000,00€	-%45,31
<i>Donostia Turismo</i>	2.616.519,00€	%0,73	3.302.401,50€	%0,87	685.882,50€	%26,21
<i>La Sirena aterpetxea</i>	774.781,99€	%0,22	504.215,88€	%0,13	-270.566,11€	-%34,92
<i>Uliako aterpetxea</i>	294.546,73€	%0,08	326.681,23€	%0,09	32.134,50€	%10,91
<i>Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa</i>	106.641,09€	%0,03	109.023,25€	%0,13	2.382,16€	%2,23
<i>Ekonomi-garapena</i>	623.481,48€	%0,17	551.053,45€	%0,15	-72.428,03€	-%11,62
<i>Donostiako Sustapena S.A.</i>	11.353.015,00€	%3,17	11.784.152,65€	%3,11	431.137,65€	%3,80
Garraio publikoa	34.202.324,63€	%9,54	35.472.864,43€	%9,37	1.270.539,80€	%3,71
<i>Garraioaren arloko administrazio orokorra</i>	185.200,00€	%0,05	158.812,00€	%0,04	-26.388,00€	-%14,25
<i>Bidaia-erakundearen hiri-garraioa</i>	9.300,08€	%0,00	9.000,00€	%0,00	-300,08€	-%3,23
<i>Beste bidaiarien garraioa</i>	31.200,00€	%0,01	31.000,00€	%0,01	-200,00€	-%0,64
<i>DBUS</i>	33.811.929,78€	%9,43	34.974.052,43€	%9,24	1.162.122,65€	%3,44
<i>Garraio-azpiegiturak</i>	164.694,77€	%0,05	300.000,00€	%0,08	135.305,23€	%82,16
Azpiegiturak	11.133.515,16€	%3,11	10.705.609,31€	%2,83	-427.905,85€	-%3,84
<i>Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa</i>	1.666.672,60€	%0,47	1.166.097,98€	%0,31	-500.574,62€	-%30,03
<i>Proiektu eta obrak</i>	5.424.166,95€	%1,51	5.450.658,33€	%1,44	26.491,38€	%0,49
<i>Uraren hornidura: Añarbe</i>	4.042.675,61€	%1,13	4.088.853,00€	%1,08	46.177,39€	%1,14
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	76.976,72€	%0,02	78.276,00€	%0,02	1.299,28€	%1,69
<i>Kontsumitzailearen informaziorako udal-bulegoa</i>	76.976,72€	%0,02	78.276,00€	%0,02	1.299,28€	%1,69
JARDUKETA OROKORRA	30.675.571,69€	%8,55	31.353.937,54€	%8,35	678.365,85€	%2,21
Gobernu organoak	4.304.195,50€	%1,20	4.462.404,49€	%1,18	158.208,99€	%3,68
<i>Udal taldeak</i>	3.069.522,50€	%0,86	3.125.816,50€	%0,83	56.294,00€	%1,83
<i>Gobernu organoak</i>	1.234.673,00€	%0,34	1.336.587,99€	%0,35	101.914,99€	%8,25
Administrazio Orokorra	18.811.956,59€	%5,24	19.361.390,15€	%5,12	549.433,56€	%2,92
<i>Komunikazioak</i>	628.800,96€	%0,18	600.553,48€	%0,16	-28.247,48€	-%4,49



Aurrekontu programak	2015		2016		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
<i>Eraikinak</i>	1.925.863,71€	%0,54	1.904.616,96€	%0,51	-21.246,75€	-%1,10
<i>Informatika</i>	5.886.177,81€	%1,64	6.154.399,91€	%1,63	268.222,10€	%4,56
<i>Lehendakaritza</i>	1.312.584,22€	%0,37	1.241.195,24€	%0,33	-71.388,98€	-%5,44
<i>Giza baliabideak: zuzendaritza eta administrazioa</i>	2.773.515,20€	%0,77	2.954.221,89€	%0,78	180.706,69€	%6,52
<i>Idazkaritza nagusia eta lege zerbitzuak</i>	1.260.803,71€	%0,35	1.283.895,07€	%0,34	23.091,36€	%1,83
<i>Barne zerbitzu orokorrak</i>	1.079.560,71€	%0,30	1.073.324,36€	%0,28	-6.236,35€	-%0,58
<i>Itzulpen bulegoa</i>	331.956,13€	%0,09	322.690,20€	%0,09	-9.265,93€	-%2,79
<i>Ibilgailuak</i>	894.389,85€	%0,25	910.747,98€	%0,24	16.358,13€	%1,83
<i>Datu behatokia</i>	89.000,00€	%0,02	50.000,00€	%0,01	-39.000,00€	-%43,82
<i>Herritarren parte-hartzea</i>	880.025,18€	%0,25	1.144.147,27€	%0,30	264.122,09€	%30,01
<i>Herritarrenganako arreta</i>	1.200.867,16€	%0,33	1.442.249,40€	%0,38	241.382,24€	%20,10
<i>Hauteskundeak</i>	30.000,00€	%0,01	30.000,00€	%0,01	- €	%0,00
<i>Ezusteak</i>	518.411,95€	%0,14	249.348,39€	%0,07	-269.063,56€	-%51,90
Finantza eta zerga-administrazioa	7.559.419,60€	%2,11	7.530.142,90€	%2,00	-29.276,70€	-%0,39
<i>Politika ekonomikoa eta fiskala</i>	4.143.315,72€	%1,16	3.790.078,26€	%1,00	-353.237,46€	-%8,53
<i>Tributu kudeaketa</i>	3.416.103,88€	%0,95	3.740.064,64€	%1,00	323.960,76€	%9,48
ZOR PUBLIKOA	15.688.719,83€	%4,38	16.239.565,35€	%4,29	550.845,52€	%3,51
Zor publikoa	15.688.719,83€	%4,38	16.239.565,35€	%4,29	550.845,52€	%3,51
<i>Zor publikoa</i>	15.688.719,83€	%4,38	16.239.565,35€	%4,29	550.845,52€	%3,51
GUZTIRA	358.493.263,08€	%100	378.395.662,21€	%100	19.902.399,13€	%5,55



5.1. 2016Ko inbertsioak

2016rako aurreikusitakoaren arabera, 54.524.073,89€-ren inbertsioak egingo dira.

Eskura dugun informazioarekin ez dugu aztertzerik horiek zer eragin izango duten genero aldetik. Beraz, etorkizunean informazio gehiago izan nahiko genuke aurreikusitako inbertsioen inguruan.

Aurrekontu programak	2016	
	Guztira	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	30.864.635,50 €	%56,61
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	3.364.596,52 €	%6,17
<i>Udaltzaingoa</i>	84.000,00 €	%0,15
<i>Zirkulazioaren eta aparkamenduaren antolamendua</i>	200.000,00 €	%0,37
<i>Eskailerak, arrapalak eta igogailuak</i>	810.000,00 €	%1,49
<i>Hiri mugikortasuna</i>	2.037.096,14 €	%3,74
<i>Prebentzio eta su-itxaltze zerbitzua, eta sorospena</i>	233.500,38 €	%0,43
Etxebizitza eta Hirigintza	22.864.288,32 €	%41,93
<i>Hirigintza</i>	18.285.490,32 €	%33,54
<i>Eraikuntzen birgaitzea</i>	2.150.000,00 €	%3,94
<i>Bide publikoak</i>	1.628.798,00 €	%2,99
<i>Solaketa eta afaltatzea</i>	800.000,00 €	%1,47
Komunitate-ongizatea	4.239.230,66 €	%7,77
<i>Saneamendua</i>	2.509.996,25 €	%4,60
<i>Ura</i>	200.000,00 €	%0,37
<i>Zabor bilketa</i>	539.279,82 €	%0,99
<i>Bide eta Etxaurren garbiketa</i>	709.954,59 €	%1,30
<i>Herri argiteria</i>	280.000,00 €	%0,51
Ingurumena	396.520,00 €	%0,73
<i>Parkeak eta lorategiak</i>	50.000,00 €	%0,09
<i>Artikutza</i>	256.520,00 €	%0,47
<i>Iraunkortasuna</i>	90.000,00 €	%0,17
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	36.000,00 €	%0,07
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	36.000,00 €	%0,07
<i>Gizarteratzea</i>	1.000,00 €	%0,00
<i>Berdintasuna</i>	35.000,00 €	%0,06
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	18.529.031,04 €	%33,98
Osasuna	25.000,00 €	%0,05
<i>Osasun publikoa eta animalien ongizatea</i>	25.000,00 €	%0,05
Hezkuntza	450.500,00 €	%0,83
<i>Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua</i>	400.000,00 €	%0,73
<i>Udalaren musika eta dantza eskola</i>	50.500,00 €	%0,09



Aurrekontu programak	2016	
	Guztira	%
Kultura	13.586.531,04 €	%24,92
<i>Kulturaren administrazio orokorra: Donostia Kultura</i>	750.000,00 €	%1,38
<i>Tabakalera</i>	2.578.085,00 €	%4,73
<i>2016 Hiriburutza</i>	9.970.946,04 €	%18,29
<i>Zaharren etxeak</i>	199.000,00 €	%0,36
<i>Gazteria</i>	88.500,00 €	%0,16
Kirola	4.467.000,00 €	%8,19
<i>Kirola: Zuzendaritza eta administrazioa</i>	802.000,00 €	%1,47
<i>Kirol instalakuntzak</i>	3.665.000,00 €	%6,72
JARDUKETA EKONOMIKOAK	4.218.918,85 €	%7,74
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	135.106,08 €	%0,25
<i>Donostia Turismo</i>	57.706,08 €	%0,11
<i>La Sirena aterpetxea</i>	49.500,00 €	%0,09
<i>Ulia aterpetxea</i>	27.900,00 €	%0,05
Garraio publikoa	300.000,00 €	%0,55
<i>Garraio-azpiegiturak</i>	300.000,00 €	%0,55
Azpiegiturak	3.783.812,77 €	%6,94
<i>Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa</i>	300.000,00 €	%0,55
<i>Proiektu eta obrak</i>	3.483.812,77 €	%6,39
JARDUKETA OROKORRA	875.488,50 €	%1,61
Gobernu organoak	100.000,00 €	%0,18
<i>Gobernu organoak</i>	100.000,00 €	%0,18
Administrazio orokorra	757.520,00 €	%1,39
<i>Eraikinak</i>	135.520,00 €	%0,25
<i>Informatika</i>	422.000,00 €	%0,77
<i>Herritarren parte-hartzea</i>	200.000,00 €	%0,37
Finantza eta zerga administrazioa	17.968,50 €	%0,03
<i>Politika ekonomikoa eta fiskala</i>	17.968,50 €	%0,03
GUZTIRA	54.524.073,89 €	%100

Aurrekontu programen arabera, Hirigintza (%33,54), 2016ko Hiriburutza (%18,29), Kirol Instalakuntzak (%6,72) eta Obrak eta Proiektuak (%6,39) ataletan egingo dira inbertsiorik handienak; txikienak, berriz, gizartea babesteko eta sustatzeko jardueretan (%0,07), nahiz eta inbertsioen %33,98 "Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena" gastu helburuan sartutako aurrekontu programetarako izango diren, horien artean direla Gazteriako, Hezkuntzako, Kiroleko eta Kulturako programak. Hala ere, informazio gehiagorik ez dugunez inbertsio horien xedez eta izan dezaketen eraginaz, ezin dugu besterik esan sailkapen horretaz harago.



6. Aztertutako programak

104 aurrekontu programetatik 22 xehekiago aztertu ditugu (%21,15), udal aurrekontuaren %29,93.

Aurrekontu programak	2016
Hiri mugikortasuna	9.034.221,83 €
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	727.653,87 €
Gizarte zerbitzuen zentroak	3.380.614,48 €
Lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza	1.379.800,13 €
Apartamentu tutelatuak	1.469.166,98 €
Gizarte abegi etxea	1.227.262,84 €
Gizarteratzea	2.903.564,04 €
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	2.837.671,85 €
Adineko pertsonen sustapena	351.956,01 €
Zaharren egoitzak	844.112,88 €
Etxez-etxeko laguntza	7.553.882,25 €
Gizarte larrialdietarako laguntzak	1.769.432,10 €
Berdintasuna	705.604,75 €
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	6.695.040,35 €
Heziketarako programak	223.329,03 €
Giza eskubideak	599.826,22 €
kultur aniztasuna	343.869,06 €
Kultura administrazio orokorra: Donostia Kultura	27.696.407,22 €
Gazteria	1.953.078,32 €
DBUS	34.974.052,43 €
Proiektuak eta obrak	5.450.658,33 €
Herritarren parte-hartzea	1.144.147,27 €
Aztertutako aurrekontu programak GUZTIRA	113.267.368,24 €
2016ko aurrekontuak GUZTIRA	378.395.662,21 €
	%
	%29,93

6.1. Gizartea Babesteko eta Sustatzeko Jarduerak

6.1.1. Berdintasuna

Berdintasun programa, *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, kasu berezia da, ia aurrekontu osoa erabiltzen baitute modu batean edo bestean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.



Berdintasunera zuzendutako programa espezifiko bat badagoenez, betetzen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 14. artikuluan ezartzen duen agindua:

<<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.

Berdintasun politiken ikuspegi dualak proposatzen du, batetik, espezifikoki bideratzea baliabideak berdintasunera, ekintza positiboko politikak sustatu ahal izateko, eta, bestetik, beste programa batzuetara ere bideratzea baliabideak, zeharkakotasuna eta politika sektoriala lantzeko.

Programa horretarako 705.604,75€ izango dira 2016an, **udal aurrekontuaren %0,19**; ehuneko xumea, baldin eta beste programa batzuekin konparatzen badugu, esate baterako, Lankidetzakoarekin (%0,37) eta Gazteriakoarekin (%0,52); gainera, **13.175,97€ gutxitu da 2015ekoaren aldean**, orduan udal aurrekontuaren %0,20 baitzen.

Berdintasun programari esleitutakoa handitzea komeni da, edo gutxienez mantentzea, eta, aldi berean, beste aurrekontu programa batzuetan berdintasuna lortzea helburu duten baliabideak aktibatu behar dira.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	405.985,62	57,54
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	158.619,13	22,48
4	Transferentzia arruntak	106.000,00	15,02
6	Inbertsio errealak	35.000,00	4,96
GUZTIRA		705.604,75	100,00

2. kapitulua

Berdintasuneko 2. kapitulua **%3 murriztu da 2016an**, 163.519,79€-tik 158.619,13€-ra pasatu da eta.

Esan bezala, 2. kapituluko gehiena (226.99 kontu-saila) eraldaketa feministarako jardueretara bideratu da, eta gehien nabarmentzen diren gastuak indarkeria sexistaren aurkako ekintzetarako (kontu-sailaren %30,01) eta emakumeak ahalduntzeko (%21,75) bideratutakoak dira.



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Eraldatze feministarako ekintzak	112.130,40
226.99.01	Indarkeri sexistaren aurkako ekimenak	41.500,00
226.99.02	Ikerketa lanak eta formazioa	16.516,34
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	24.389,22
226.99.04	Hiriko puntu kritikoetan hobekuntzak	8.192,81
226.99.05	Zaintza partekatua	8.192,81
226.99.06	Berdintasun kontseilua: Gorren itzulpena	300,00
226.99.07	III Berdintasun Plana: Inplementatu eta sistematizatu	13.039,22

4. kapitulua

Transferentzia arruntei dagokienez, bi kontu-sail daude aurrekontuan: lehenaren barruan, emakumeen elkarreentzako eta berdintasuna sustatzen duten elkarre mistoentzako diru laguntzak sartzen dira, eta bigarrenaren barruan, berriz, Emakumeen Etxearen mantentze-lanak; hain zuzen, hitzarmen baten bidez egingo dira lanok eta 46.000euroren kontu-saila izango da horretarako.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak	60.000,00
481.02	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei aparteko diru-laguntzak	46.000,00
	4. kapituluaren guztizkoa	106.000,00

6. kapitulua

Inbertsioen kapituluan, 30.000 euroren kontu-sail bat dago Donostiako zenbait puntu kritiko hobetzeko, bai eta 5.000 euroren beste kontu-sail bat ere, Emakumeen Etxea eraikina hobetzeko.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
601.01	Hiriko zenbait puntu kritikoen hobekuntza	30.000,00
622.99.01	Emakumeen Etxea	5.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	35.000,00

2015eko txostenean, lehentasunezko zatik jo zen proiektuaren beharretara egokitzea Emakumeen Etxeko espazioa; izan ere, askoz ere emakume gehiago etortzen da orain (40.000 sarrera baino gehiago izan ziren etxean 2013. urtean), eta Okendo kaleko lokalean erabilgarri dagoen espazioa aintzat hartuta planteatu behar izaten dira jarduerak, hala kopuru aldetik nola motari dagokionez. Txosten hark gomendatzen zuen beste espazio bat prestatzea Emakumeen Etxerako, sarbide errazekoa eta Emakumeen Etxeko zerbitzu eta jardueretarako instalazio egokiak



izango zituena. 2. kapituluan kontu-sail berbera mantendu denez eta 6. kapituluan 5.000 euroren kontu-sail bat sartu denez, ez dago hori egiterik.

6.1.2. Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza

Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartutakoak, 1.379.800,13€ ditu guztira 2016an, **udal aurrekontuaren %0,37**.

2015ean, programa horretarako 1.370.847,61€ zeuden, udal aurrekontu osoaren %0,38.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	191.222,67	13,86
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	103.393,46	7,49
4	Transferentzia arruntak	1.085.184,00	78,65
GUZTIRA		1.379.800,13	100,00

Garapenerako Lankidetzak da bere jardueran genero ikuspegia gehien eta ondoen sartua duen programetako bat; izan ere, hori kudeatzen duen zuzendaritzak giza garapen sostengagarriko lankidetzak eta heziketa plan gidari bat du, eta, hor esaten denez, genero ekitatea da printzipio gidarietako bat, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna, berriz, zeharkako ildo bat.

2. kapitulua

Garapenerako Lankidetzak eta Heziketako 2. kapitulua **%2,48 hazi da 2016an**, 100.893,46€-tik 103.393,46€-ra pasatu baita.

226.99 kontu-saila, 70.000€-rena, **garapenerako lankidetzaren eta heziketaren arloan sentsibilizatzeko proiektuetara** bideratu da.

4. kapitulua

Programa honetako gasturik garrantzitsuena 4. kapituluan dago, 1.085.184,00 euro gorde baitira lankidetzako eta garapenerako proiektuak sustatzeko diru laguntza eta hitzarmenarako.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Lankidetzak proiektuetarako diru-laguntzak	471.047,22
481.02	Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa proiektuetarako diru-laguntza	224.308,20
481.03	Lankidetzak proiektuen hitzarmenak	296.073,79
481.04	Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa hitzarmenak	41.416,21
481.05	Larrialdi-laguntzara zuzendutako diru-laguntza lerro berria	52.338,58
	4. kapituluaren guztizkoa	1.085.184,00



481.01 kontu-saila da handiena, 471.047,22€ bideratu baitira **kanpoko lankidetzako proiektuak** diruz laguntzera. **Diru laguntzak arautzeko oinarriek berdintasun klausula espezifikoak dituzte** eta diruz lagundutako proiektuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan **sartzen dute genero ikuspegia**.

2015EAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN ONURADUNAK

GARAPENERAKO LANKIDETZA	Onuradunak	Proiektuan jasotako datuak			
		Emakumeak		Gizonak	
CALCUTA ONDOAN + Betiko F.	80.000	70.000	%87,5	10.000	%12,50
MUGEN GAINETIK	130	80	%61,54	50	%38,46
TAU FUNDAZIOA	390	203	%52,05	187	%47,95
MUGARIK GABE	497	393	%79,07	104	%20,93
ALBOAN FUNDAZIOA	420	294	%70,00	126	%30,00
BAKEA ETA ALKARTASUNA	1115	741	%66,46	374	%33,54
MUNDUBAT	517	505	%97,68	12	%2,32
SODEPAZ + Biladi	950	270	%28,42	680	%71,58
NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK	Ez da adierazi				
BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA	247	122	%49,39	125	%50,61
GUZTIRA	84.266	72.608	%86,17	11.658	%13,83

GKEen esku-hartzeek emakumeak dituzte ardatz, atzerrian gauzatzen dituzten garapenerako lankidetzako proiektuen onuradunen % 86,17 baitira. Horren arrazoia da, XX. mendeko 80ko urteetatik hona, hainbat ikuspuntutatik gomendatu izan dela emakumeak jartzea garapenerako lankidetzako proiektuen erdigunean, haiek pairatzen baitituzte gehien pobrezia-ondorioak.

481.03 partida ere atzerriko lankidetzako proiektuak bideratzen da, eta, horretarako, hitzarmenak egiten dira Euskal Fondoa elkartearekin, Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoarekin (RASD) eta RASDarekin lan egiten duten euskal elkarteekin. Lankidetzako Bulegoak berdintasun irizpideak erabiltzen ditu Euskal Fondoa elkartearekin zein proiektu babestu erabakitzeke, baina Mendebaldeko Saharako proiektuak hitzarmenetan ez dago berdintasun klausularik; hortaz, komeni da horiek aztertzea, emakumeek eta gizonen baliabide horien onura modu bidezkoan jasotzen dutela bermatzeko.

481.02 partidako diru laguntzak lurraldean bertan sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako proiektuak gauzatzera bideratuta daude, eta berdintasuneko klausulak dituzte. Onuradunen %57,06 emakumeak dira.



2015EAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN ONURADUNAK

GARAPENERAKO HEZIKETA ETA SENTSIBILIZAZIOA	Proiektuan jasotako datuak				
	Onuradunak	Emakumeak		Gizonak	
EMAÚS + Mugarik Gabe	No se señala				
MUNDUBAT + Pausumedia	25.240	14.632	57,97%	10.608	42,03%
CALCUTA ONDOAN + Ikertze	216	137	63,43%	79	36,57%
MUGARIK GABE	No se señala				
SODEPAZ + Biladi + Paz con Dignidad + Paz y Solidaridad	1.820	1.090	59,89%	730	40,11%
ALBOAN	560	336	60,00%	224	40,00%
TAU FUNDAZIOA + Proide Proega + FISC + CIA. MARÍA + Acción Marianista.	3.150	1.597	50,70%	1.553	49,30%
MUGEN GAINETIK	522	218	41,76%	304	58,24%
ECONOMISTAS SIN FRONTERAS	300	140	46,67%	160	53,33%
GUZTIRA	31.808	18.150	57,06%	13.658	42,94%

2016an, larrialdietako laguntzetarako beste kontu-sail bat sartu da (481.05), eta, segur aski, Donostian hartuko diren errefuxiatuei arreta emateko erabiliko da.

6.1.3. Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa

Gizarte Ongizatea: Zuzendaritza eta Administrazioa programak, Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikan sartutakoak, 727.653,87€ ditu guztira 2016rako, eta hori **udal aurrekontuaren %0,19** da. 2015ean, 1.036.278,63€ (udal aurrekontuen %0,29) zeuden, eta, beraz, 308.624,76€ gutxiago da orain.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	405.523,87	55,73
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	25.250,00	3,47
4	Transferentzia arruntak	296.880,00	40,80
GUZTIRA		727.653,87	100,00

II. Berdintasun Plana (2008-2013) gauzatzeko aldian, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzak, bere tamaina eta konplexutasuna zirela eta, erabaki zuen barne koordinazioko talde bat sortzea berdintasun ekintzak kudeatzeko. Talde hori honela osatuta dago: Berdintasun Atalarekin hitz egiten duen pertsona bat eta Zuzendaritza osatzen duten lau zerbitzuetako berdintasun



arduradunak. Barne koordinazioko egitura hori aitzindaria eta erreferentea izan da Udalean, eta, horri esker, aurrera egin ahal izan dugu egituraren barruan genero ikuspegia sartzeko bidean.

2. kapitulua

Gizarte Ongizatea: Zuzendaritza eta Administrazioa programako 2. kapitulua **%8,03 gutxitu da 2016an**, 27.454,00€-tik 25.250,00€-ra pasatu baita.

2016ko aurrekontu proposamenean jasotako 226.09 kontu-sailean, 5.000€-ren kontu-saila gorde da programa horretan III. Berdintasun Planeko ekintzak egiteko.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.09	Azterlan eta lan teknikoak	5.000,00

6.1.4. Prebentzioa, haurtzarora eta familia

Prebentzioa, Haurtzarora eta Familia programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartutakoak, 2.837.671,85€ ditu guztira 2016an, **udal aurrekontuaren %0,75**. 2015arekin alderatuz, programa horretarako izendatutako diru kopurua 77.284,67€ handitu da, orduan 760.387,18€ baitzeuden, aurrekontuaren %0,77.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	548.476,52	19,33
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.289.195,33	80,67
GUZTIRA		2.837.671,85	100,00

2. kapitulua

Prebentzioa, Haurtzarora eta Familia programako 2. kapitulua **%1,78 handitu da 2016an**, 2.249.129,69€tik 2.289.195,33€-ra pasatu baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu sozio-kulturalak	2.269.895,33,00
227.04.01	Adikzioen Tokiko Planaren neurriak	65.000,00
227.04.02	Indarkeri matxistaren aurkako prebentzio programa	15.000,00
227.04.03	Arreta soziokulturak eta psikosozialaren zerbitzua	1.321.752,36
227.04.04	Prestakuntza, aholkatze eta esku-hartze goiztiarra	868.142,97

Arlo funtzionalean, Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta Zerbitzua (GIBEAZ) **Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzuen** barruan dago, eta, beraz, haren



aurrekontu programaren mende dago (227.04.02 kontu-saila). GIBEAZek ostatua, harrera, diagnostikoa, orientabidea, laguntza psikologikoa eta larrialdietako laguntza ekonomikoak ematen dizkie indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeei. **Zerbitzu horrek 187 emakumeri eman zien arreta 2014an**, eta baliabide hauek jarri zituen haien eskura:

Zerbitzua	2012	2013	2014
Laguntza psikologikoa	109	88	81
Aholkularitza juridikoa	11	9	10
Aholkularitza, informazioa	218	169	187
Harrerako etxebizitzak	9	4	2
Larrialdiko harrera - Berehalako Arretarako Zentroa	34	26	26
Larrialdiko txekea	31	23	16
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	16	18	19
Emakumeei akonpainamendua egitea	31	25	25

Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituzten baliabideetarako sarbide dira udaleko gizarte zerbitzuak. Beraz, Donostiako Udalak arlo honetan egiten duen ekarpen nagusia emakume erabiltzaileei kasu egiteko eta dagokien zerbitzura bideratzeko langileak dira eta 1. kapituluan jasota dago gastu hori.

Programa honetako 2. kapituluko beste jarduera batzuk hainbat kontratu publikoren bidez egiten dira: psikologo komunitarioen kontratua (babesgabetasun arriskuan dauden adingabeekin lan egiten dute), esku-hartze goiztiarrerako kontratua (kasuak antzemateko programa); talde psikosozialaren eta gizarte hezkuntzako taldearen kontratua (bolumen handienekoa: 1.321.752,36€) eta gazteen artean drogen kontsumoa eta adikzio digitalak prebenitzeko bi kontratu. Azken horietako bat genero ikuspegia aintzat hartuta diseinatu da, eta horren bidez zuzenean esku hartzen da gazteen lokal pribatuetan. Gainerakoek ez dute berdintasun klausularik; beraz, komenigarria da horiek nola sartu aztertzea.

6.1.5. Adineko pertsonen sustapena

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikan sartutako Adineko Pertsonen Sustapena programaren bidez, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzak laguntza ematen die udalaren edo beren ekipamenduetan jarduten duten adinekoen elkarteei.



Programan 351.956,01€ daude, udal aurrekontuaren %0,09. 2015ean, programan 358,332,83€ zeuden eta aurrekontuaren %0,10 zen. Beraz, 6.372,82€ gutxitu da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	49.886,01	14,17
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	276.960,00	78,69
4	Transferentzia arruntak	25.110,00	7,13
GUZTIRA		351.956,01	100,00

2. kapitulua

Adineko Pertsonen Sustapena programako 2. kapitulua **%2,88 gutxitu da 2016an**, 285.185,09€-tik 276.960,00€-ra pasatu baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu sozio-kulturalak	228.960,00
227.04.01	Dinamizazioa zentroetan	224.308,20
227.04.02	Topalekua-ko kudeaketa	78.000,00

Kapitulu honetatik gehiena 227.04 kontu-sailean dago, kontratu soziokulturalak kudeatzeko kontu-sailean; zehazki, 55 urtetik gorakoentzako “Plus 55” aisialdiko udal programa, zahartze aktiboa sustatzeko dena, eta Aieteko Topalekua izeneko zentroaren kudeaketa.

Berdintasunerako III. Planaren esparruan, erantzunkidetasuna eta osasuna sustatzeko ekintzak egitea aurreikusi da “Plus55” programan. Zoritxarrez, oraindik ez daukagu programa horren onuradunei buruzko daturik.

4. kapitulua

Programa honetako laugarren kapituluan, Hurkoa fundazioari, Gurutze Gorriari eta Nagusilan elkarteari zuzendutako diru laguntza izendunak jasotzen dira. Horietako bakar batek ere ez dauka berdintasun klausula espezifikorik.



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.02	Hitzarmena Gurutze Gorriarekin	8.280,00
481.03	Hitzarmena Nagusilan Erretiratu Boluntarioekin	8.280,00
481.04	Hitzarmena Hurkoa Fundazioarekin	8.550,00
4. kapituluaren guztizkoa		25.110,00

6.1.6. Adinekoentzako egoitzak

Adinekoentzako Egoitzak programarako 884.112,88 euroren kontu-sail bat dago 2. kapitulan, Zorroaga fundazioari zuzendua, adineko autonomoei ostatu eta arreta zerbitzua eman diezaien bizitoki ekipamenduetan.

Kontu-sail hori 2015eko aurrekontuetan jasotakoaren berdina da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	844.112,88	100,00
TOTAL		844.112,88	100,00

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak sinatutako akordioaren arabera, Foru Aldundiaren ardura da mendeko pertsonei arreta emateko gastu publikoa; eta Udalarena, ostera, adineko autonomoen gastua eta, berrikiago, mendekotasun maila txikia dutenena (1.1 mendekotasun maila). Eskumen banaketa hori adinekoentzako aurrekontu programetan islatzen da.

2. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.92	Autonomoak, Zorroagako egoitzako ekipamenduan	844.112,88
2. kapituluaren guztizkoa		844.112,88

Baliabide honetan 67-72 pertsonarentzako tokia dago (batentzako edota birentzako logeletan), eta 2014an 67 pertsona egon ziren; hala ere, ez daukagu sexuaren araberako daturik. Zerbitzua zenbatek eskatzen duten eta estaldura tasa zenbatekoa den jakin nahiko genuke zerbitzua generoaren ikuspegitik egokia ote den balioesteko.



6.1.7. Babespeko apartamentuak

Babespeko apartamentuak programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartutakoak, 1.469.166,98€ ditu 2016an, udal aurrekontuen %0,39. 2015ean, 1.473.517,38€ zituen (aurrekontuan %0,41).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	142.259,95	9,68
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.286.907,03	87,59
4	Transferentzia arruntak	40.000,00	2,72
GUZTIRA		1.469.166,98	100,00%

2. kapitulua

2015ean, programa horretako 2. kapituluan 1.343.194,93€ zeuden, eta 2016an 1.286.907,03€ daude; beraz, 4,19 puntu jaitsi da.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.92	Ostatu adineko pertsona autonomoentzat	913.446,43
227.92.01	<i>Etxebizitza komunitarioak</i>	200.000,00
227.92.02	<i>Balioanitzeko apartamentuak</i>	114.008,17
227.92.06	<i>Apartamentu sozialak: Berra</i>	280.000,00
227.92.07	<i>Fermin Calbetoneko apartamentuak</i>	73.480,98
227.92.08	<i>Zorroagako giza-apartamentuak</i>	122.441,28
227.92.09	<i>Zorroagako giza-apartamentuen amortizazioa</i>	123.516,00
227.96	Giza-apartamentuak	236.635,60
227.96.01	<i>EPVE-ko giza-apartamentuen atezaindegia</i>	76.635,60
227.96.02	<i>EPVE-ko giza-apartamentuen kudeaketa</i>	160.000,00
227.99	Eguneko arreta adineko pertsonentzat	63.000,00

Programa hori adineko autonomoentzako gizarte etxebizitzaren mantentze gastuetarako da. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kasuan bezalaxe, gorago azaldutako eskumen banaketarekin bat, Udalaren bitartez eskura daitezke GFAk dependentziaren bat duten pertsonentzat dituen bitartekoak, esaterako, dependentziarako laguntzak eta egoitzetako ekipamenduak, eta Udalak kudeatzen ditu, zuzenean, autonomoak izanda ere eguneroko lan batzuetarako laguntza behar duten adinekoentzako beste baliabide batzuk. Baliabide horietan 177 pertsonarentzako tokia dago, eta 2014an okupazioa ia 150 pertsonakoa izan da. Ez daukagu sexuaren arabera bereizitako daturik. Aurreko programan bezalaxe, zerbitzuaren eskaerari eta estaldura tasari buruzko datuak



izan nahi genituzke, eta onuradunak hautatzeko irizpideak zein diren ere jakin nahiko genuke, balorazioa generoaren ikuspegitik egiteko.

Etxebizitza soziala	Plazak 2014
Berrako apartamentu sozialak	Gehienezko plazak: 39 (33 apartamentu, horietako 6 erabilera bikoitzerako aukerarekin)
Zorroagako apartamentu sozialak	Gehienezko plazak: 27 (17 apartamentu, horietako 10 erabilera bikoitzerako aukerarekin)
Elizaran apartamentu babestuak	Gehienezko plazak: 10 (8 apartamentu, horietako 2 erabilera bikoitzerako aukerarekin)
Txara 2 apartamentu balioanitzak	Gehienezko plazak: 18 (18 apartamentu)
Ategorrieta, Berio, Bentaberri eta Marrutxipiko apartamentu sozialak	Gehienezko plazak: 47 Ategorrieta. Gehienezko plazak: 6 (4 apartamentu, 2 erabilera bikoitzerako aukerarekin) Berio. Gehienezko plazak: 9 (8 apartamentu, bat erabilera bikoitzerako aukerarekin) Benta-Berri. Gehienezko plazak: 6 (3 apartamentu bikoitz) Marrutxipi. Gehienezko plazak: 28 (14 apartamentu erabilera bikoitzerako aukerarekin)
Monseko etxebizitza komunitarioak	36 plaza

Adineko autonomoentzako bizilekuen okupazioa	Etxebizitza sozialen sarea	Egoitza ekipamendua
2014ko eskaera berriak	32	18
Itxaron zerrendan egonik plaza eskuratu dutenak	9	10
Baliabideen arteko lekualdatzea (apartamentutik egoitzara)	3	
Bertan behera uzte edota bajak itxaron zerrendan	18	16
Plaza okupatuak, guztira	150	67

6.1.8 Etxez etxeko laguntza

Etxez etxeko laguntza programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartutakoak, 7.553.882,25€ ditu 2016an, udal aurrekontuen %2. 2015ean baino 14.403,02 euro gehiago daude, orduan 7.539.479,23€ baitzeuden (aurrekontuen %2,10).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	94.882,25	1,26
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	7.459.000,00	98,74
GUZTIRA		7.553.882,25	100,00%



2. kapitulua

2015ean, programa honetako 2. kapitulurako 7.452.940,02€ zeuden, eta 2016an 7.459.000,00 daude, %0,08 gehiago; beraz, esan dezakegu kontu-saila mantendu egin dela.

Etkez Etxeko Laguntza programako 2. kapituluaren barruan, ia kontratu hauxe bakarrik sartzen da: nolabaiteko dependentzia edo beharra duten gizon-emakumeei etkez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeko kontratua.

Erabiltzaileei beren etxean bertan ematen zaie zerbitzua, norberaren eta etxeko lanak egiten laguntzeko. Banakoei zein etxeko lanak egiteko edota zaintza lanetarako mugaren bat duten familiei ematen zaie, eta are zaintzaileari atsedean emateko ere.

Kontratua 7.457.000 euro da urtean, eta **2014an 1.535 pertsona izan ziren** zuzeneko onuradunak, **horietatik %74,6 emakumeak**.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.21	Etkez-etxeko laguntza	7.459.000,00
227.21.01	Etkez-etxeko laguntza	7.457.000,00
227.21.02	Bestelako etxe edo komunitate zerbitzuak	2.000,00
	2. kapituluaren guztizkoa	7.459.000,00

Zerbitzua erabili zuten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiago da, erabiltzaile gehienak 75 urtetik gorakoak direlako eta Donostian 80 urte baino gehiago dituztenen % 70,2 emakumeak direlako.

2014an etkez etxeko laguntza jaso duten pertsonak:

Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
<65 urte	123	81	204	13,3
65 eta 74 artean	86	57	143	9,3
75 eta 84 artean	372	126	498	32,4
85etik gora	564	126	690	45
Guztira	1145	390	1535	100
	%	74,6	25,4	100

Hortaz, erabiltzaile gehienak emakumeak dira, baita zerbitzuaren enpresa esleipendunak kontratatuta dituen langile gehienak ere, talde hori oso feminizatuta baitago. Asadek (Etkez etxeko laguntzaileen elkarte sindikala) 2015eko txostena egiteko emandako datuen arabera, gaur



egun etxez etxeko laguntzaile gisa lan egiten duten 400 pertsonetatik 390 emakumeak dira, hau da, %97,5.

Beraz, zerbitzu hori giltzarria da generoaren ikuspegitik. Programa horretan egindako edozein murrizketak hiru talderi egingo lieke kalte: batetik, erabiltzaileei, ez bailukete kalitatezko zerbitzurik izango; bigarren, langileei, irabaziak murriztuko bailitzaizkieke, eta hirugarren, eta aurrekoak bezain garrantzitsuak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak egingo ez lituzkeen lanak beren gain hartu behar lituzketen pertsonen (kasu askotan etxean eta ordainsaririk gabe), gehien-gehienak emakumeak, ongi dakigunez.

Hortaz, positibotzat jotzen dugu Udal Gobernuak programa horri esleitutako kopurua mantentzea, nahiz eta komenigarria izango litzatekeen zenbateko hori handitzea, kontuan hartuta Donostian 27.910 pertsonak dituztela 70 urte baino gehiago, hau da, herritar guztien %15ek.

Bestalde, azken urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak dependentzia duten pertsonen eskaintako orduen kostu publikoa, eta Udalak, berriz, pertsona autonomoei eskaintakoak ordaindu ditu. Hala bada, nahiz eta enpresa esleipendunarekiko kontratua Udalak kudeatu, GFak gastuaren zati handi bat hartu du bere gain, eta hori udal aurrekontuan islatuta ageri da, diru sarrerei dagokien atalean. Nolanahi ere, bi erakundeek berriki adostutakoaren arabera eta abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea betetzeko, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskumena Udalak izango du, eta, hortaz, aurreikusteko modukoa da Aldundiaren ekarpena progresiboki murriztuko dela datozen urteetan eta Udalak konpentsatu beharko duela murrizketa hori.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren magnitude nagusien bilakaera 2011tik 2014ra.

	2011	2012	2013	2014
Prezioa/zerbitzu ordua	18,02	19,27	20,43	20,53
Eskaera berriak	480	477	443	468
Arreta jaso duten pertsonak	1616	1580	1518	1535
Arreta orduak	419.044,35	416.909,00	418.164,70	418.486,60
Gastua, guztira	7.523.353,00	8.055.129,40	8.567.104,68	8.637.488,68
Udalaren ekarpena	1.748.712,75	1.873.202,95	2.354.134,77	4.361.757,12
Aldundiaren ekarpena	4.703.181,12	5.062.422,56	5.027.398,88	3.142.191,78
Erabiltzaileen ekarpena	1.071.459,12	1.119.503,89	1.185.571,03	1.133.539,78



Hortaz, aurreikus dezakegu Udalak programa honi egingo dion ekarpena handitu egingo dela, azaldutako arrazoiengatik, baina komenigarria litzateke eskainitako zerbitzu orduen kopurua ere handitzea, baita zaindutako pertsonen kopurua ere.

6.1.9. Gizarte larrialdietarako laguntzak

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.769.432,10€ da 2016an, udal aurrekontuen %0,47. Diru izendapena 2015ekoa baino 300.000€ handiagoa da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
4	Transferentzia arruntak	1.769.432,10	100,00%
GUZTIRA		1.769.432,10	100,00%

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, aldizkakoak ez diren diru laguntzak ematen zaizkie ohiko nahiz ezohiko gastu zehatz batzuei aurre egiteko adina baliabiderik ez duten pertsoneri, gizarte bazterketari aurre egin eta bazterketa hori eragotzi edo arintzeko.

2014an, 2.816 eskabide egon ziren baliabide horretarako. Eskabide horietatik, 2.613 familiak (%92,97) eskuratu zituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, eta **onuradunak 4.801** izan ziren guztira. **%64,8 emakumeak ziren.**

Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
25 urtetik beherakoak	53	40	93	3,6
25-45 urte	583	419	1002	38,3
45-65 urte	498	319	817	31,3
65 urtetik gora	558	143	701	26,9
Guztira	1692	921	2613	100
	%	64,8	35,2	100



4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
480.01	Gizarte larrialdietarako laguntzak	1.469.432,10

6.1.10. Gizarte Abegi Etxea

Gizarte Abegi Etxea programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartuak, 1.227.262,84€ ditu 2016an, udal aurrekontuen %0,32. 2015ean baino 55.073,42 euro gutxiago, orduan 1.282.336,26€ baitzeuden (aurrekontuen %0,36). Jaitsiera, nagusiki, 1. kapituluan dago.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	772.137,55	62,92
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	455.125,29	37,08
GUZTIRA		1.227.262,84	100,00

2. kapitulua

2. kapituluan 455.125,29 euro sartu dira; 2015ean, 449.831,69 euro zeuden. Horren barruan sartzen dira **Mons pasealekuan kokatuta dagoen etxegabeentzako abegi etxea mantentzeko lanak**. Etxegabeek gehienez 3 gau igaro ditzakete bertan. “Eskakizun txikiko” zentroa da, hau da, erabiltzaileek ez dute baldintzarik bete behar, baina ez dute esku-hartze sozialik jasotzen, soilik janaria, ostatua eta osasun laguntza, beharrezkoa izanez gero. 2014an, 3.211 pertsonak 2.143 sarrera egin zituzten; pertsona horietatik 1.093 lehen aldiz joan ziren zentrorara.<0} Guztira, 13.992 ostatu gau izan dira, hau da batez besteko okupazioa 38,33 pertsonakoa izan da eguneko, eta batez besteko okupazio indizea, berriz, %95,83 izan da. **Batez ere, gizonek erabiltzen dute (%85,9).**

Komenigarria litzateke informazio gehiago izatea emakume etxegabeei buruz, zergatik ez diren baliabide horretara joaten, eta abar.



6.1.11. Gizarteratzea

Gizarteratze programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 2.903.564,04€ da 2016an, udal aurrekontuen %0,77. 2015ean, 2.813.593,08€-ren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuen %0,78.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	377.505,00	13,00
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.369.084,58	47,15
4	Transferentzia arruntak	1.155.974,46	39,81
6	Inbertsio errealak	1.000,00	0,03
GUZTIRA		2.903.564,04	100,00

Gizarte Ongizateko beste aurrekontu programa batzuekin gertatzen den bezala, zerbitzu honen giltza zerbitzua ematen duten udal langileak dira, eta eskaintzen dituzten baliabideak, berriz, beste erakunde edo beste udal zerbitzu batzuetatik datoz, gehien-gehienak.

2. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu soziokulturalak	1.141.384,58
227.04.00	<i>Gaueko arreta zentroa (laguntza teknikoa)</i>	323.978,89
227.04.01	<i>Gizarteratze hitzarmenak (konpainia programa)</i>	178.005,69
227.04.02	<i>Giza-larrialdietan esku-hartzea</i>	383.000,00
227.04.04	<i>Eguneko arreta zentroa</i>	256.400,00

Gizarteratze atalaren 2. kapituluaren barruan, mantentze gastuak eta larrialdietarako eta gizarteratzeko zentroekin eta programekin zerikusia duten hainbat kontratu daude sartuta, bai eta zenbait laguntza ekonomiko ere.

Gizarteratzeko beste funtsezko zerbitzu bat gizarteratzeko eta laneratzeko diagnostikoak eta baliabideak dira. Gizarteratzeko eta laneratzeko diagnostiko pertsonalizatuak Gizarte Zerbitzuen Zentroetan egiten dira. 2014an, 257 fitxa bete zituzten, 108 emakumeenak (%42) eta 149 gizonenak (%58). Diagnostikoa gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidea osatzeko lehen urratsa da. Ibilbide horien barruan, Donostiako Sustapenarekin lankidetzan, prestakuntzako edota laneko baliabideak eskaintzen dizkiete egungo krisi ekonomikoari begira ahulenak diren taldeei: 45 urtetik gorako gizon-emakumeak, 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabetuak, emakumeak, DSBE edo DSBL jasotzen duten pertsonak eta ezinduak.



2014. urtean, enplegu eta prestakuntzarako bi programa jarri dira abian. Programa horiek lana lortzeko eta prestatzeko aukera bat ematen die lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenei. Batetik, Foru Aldundiak diruz lagundutako **programa baten bidez, 35 pertsona kontratatu dira, eta horien artean Gizarte Ongizateko 22 erabiltzaile zeuden:** 7 emakume (%31,8) eta 15 gizon (%68,2).

Bestalde, beste lan programa bat egin da Eskualdeko Enplegu Planaren barruan, Lanbidek diruz lagunduta, eta, horri esker, 31 pertsona kontratatu dira bost hilabetez, lanaldi osoz, instalazioak eta berdeguneak garbitzeko eta margotzeko, Gureak enpresarekin. Horietatik 22 Gizarte Ongizateko erabiltzaileak ziren, 8 emakumeak (%36,4) eta 14 gizonak (%63,6).

2014an, 8 pertsona (4 emakume eta 4 gizon) Donostiako Sustapenera bideratu ziren, negozio bat jartzeko orientazioa emateko.

Beste 188 pertsona Donostiako Sustapena zerbitzura bideratu zituzten, orientazioko saio individualizatuetan parte har zezaten, euren helburu pertsonalak zehazteko eta enplegua bilatzeko gaitasuna hobetzeko, edo negozio posible bat abian jartzeko orientazioa jaso zezaten. Lantegiek langabeen talde zehatz batzuk izan zituzten ardatz: gazteak, 30 urtetik gorakoak, prestakuntzadun eta prestakuntzarik gabeko langabeak. Bitarteko horiek 79 emakumek (%42) eta 109 gizonak (%58) erabili zituzten.

Emaus Fundazioarekin, Kooperarekin eta Konfiarekin lankidetzan, enplegurako prestakuntza eta lan egitasmo bat eskaini zaie 19 pertsonari, horietako 24 (%73,7) emakumeak. Atal horretan nabarmentzekoa da 7 emakumek lana lortu dutela Konfia enpresan. Kontziliazioaren eta zaintzaren arloko zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat da, eta gizarteratze programetako emakumeak prestatzen eta kontratatzen ditu, etxeko etxeko laguntzako, garbiketako edo haurren zaintzako zerbitzuei lotutako lanak eskaintzeko. Interesgarria izango litzateke horrelako enpresek amaren ardurapeko familiei euren zerbitzuak eskaini ahal izatea, kontziliazio arazo larriak dituen talde bereziki ahula baita eta oraindik ez baita baliabide espezifikorik.



Egitasmoak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
EMAUS (Bidasoa-Bidezko Merkataritza)	4	3	7
KOOPERA (Berzioarso (arropa aukeraketa, garbiketa eta plantxa) eta Rezikleta (Garbiguneren kudeaketa))	3	2	5
KONRA (Kontziliaziorako baliabideak)	7	0	7
GUZTIRA	14	5	19
%	73,7	26,3	100

Enplegua lortzeko programa horien aurretiko beste programa batzuk ere badira, eta horien xedea da laneratzeko aukera gutxi duten gizon-emakumeek oinarrizko gaitasunak eskuratzea (Elkarrekin programa) edo gaitasun pertsonalak eta sozialak eskuratzea laneratzeko programetan sartu aurretiko urrats gisa (Bidean programa). Programa horien erabiltzaile gehienak gizonak dira (71 erabiltzaileen % 74,5). Emakume ijitoentzako programa espezifiko bat ere bada, xedetzat duena haiei ohitura eta gaitasun sozio-profesionalen eta pertsonalen prestakuntza ematea. 14 emakumek parte hartu zuten programa horretan.

Egitasmoak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Elkarrekin (okupazionala)	8	17	25
Bidean (lan aurrekoa)	13	33	46
Emakume ijitoak	14	0	14
GUZTIRA	35	50	85
%	41,2	58,8	100

6.2. Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena

6.2.1. Ikastetxeen funtzionamendua

Ikastetxeen Funtzionamendua programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 6.695.040,35€ da 2016an, udal aurrekontuen %1,77.

2015ean, 6.681.446,20€-ren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuen %1,86.



Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	1.603.250,63	23,95
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	4.691.789,72	70,08
6	Inbertsio errealak	400.000,00	5,97
GUZTIRA		6.695.040,35	100,00

2. kapitulua

Ikastetxeen Funtzionamendua programako 2. kapituluan, 4.691.789,72€-ren diru izendapena egin da 2016rako. 2015ean, 4.697,289,35€ ziren.

Ikastetxeen Funtzionamendua programaren barruan sartzen dira sare publikoko lehen eta haur hezkuntzako eskola eraikinen mantentze-lanak: besteak beste, eraikin guztien garbiketa gastuak hartzen ditu, 3.151.143,96€, bai eta argindar, gas, konponketa eta obra gastuak ere.

6. kapitulua

6. kapituluan, bi kontu-sail izendatu dira: bata 250.000€-rena, ikastetxeak hobetzeko (Eusko Jaurlaritzarekin), eta bestea, 150.000€-rena, Udalaren ikastetxeetan obrak egiteko.

6.2.2. Hezkuntza programak

Hezkuntza Programak egitasmoa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 223.329,03€ da 2016an, udal aurrekontuen %0,06. 2015ean, 219.376,38€-ren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, baina aurrekontuetan pisu berbera zuen.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	50.905,58	22,79
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	15.000,00	6,72
4	Transferentzia arruntak	157.423,45	70,49
GUZTIRA		223.329,03	100,00

2. kapitulua

Hezkuntza programak egitasmoko 2. kapituluko diru izendapena 15.000€-an mantendu da.



4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Ikastetxeentzako eta ikaskuntzarekin zerikusia duten elkarteentzako diru-laguntzak	131.670,00
481.02	EHIGE Gurasoen Elkartea: Euskal Eskola Publikoaren Jaia	2.700,00
481.03	Ikertze: Hip Hip Hurri	6.916,35
481.04	Baikara: 2016ko proiektuak	16.137,10
4. kapituluaren guztizkoa		157.423,45

Ikastetxeetarako eta irakaskuntzarekin lotutako elkarteetarako diru laguntzek 4. kapituluko 131.670€ hartzen dituzte, eta haien oinarri arautzaileetan sartutako balioespen irizpideen artean ez dago berdintasunarekin lotutakorik. Komenigarria izango litzateke hori egitea, diruz lagundutako proiektuek genero ikuspegia edukitzea sustatzeko. Gauza bera gertatzen da hitzarmen bidez ematen diren diru laguntza zuzenekin. Komeni da berdintasuneko klausulak sartzea hezkuntzaren arloko elkarteekin izenpetutako hitzarmenetan, horrela bermatuko baita koedukazioa diruz lagundutako jardueretan.

6.2.3. Giza eskubideak

Giza Eskubideak programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 599.826,06€ da 2016an, udal aurrekontuen %0,16. Programa horretako diru izendapena, 2015ekoaren aldean, 86.686,22 euro gutxitu da (%12,6), eta aurren 686.512,28€ da, aurrekontuen %0,19.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	191.389,35	31,91
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	335.636,87	55,96
4	Transferentzia arruntak	72.800,00	12,14
GUZTIRA		599.826,22	100,00

2. kapitulua

Giza Eskubideak programako 2. kapitulua 12.935,05 euro gutxitu da 2015etik 2016ra (%3,71), 348.571,92 eurotik 335.636,87 eurora pasatu baita.



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste hainbat gastu	241.847,00
226.99.01	Oroimen historikoa	22.500,00
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	47.000,00
226.99.03	Zinemaldia eta giza eskubideak	123.847,00
226.99.04	Bakea eta elkarbizitza munduan	23.000,00
226.99.05	Errefuxiatuen harrera	1.000,00
226.99.06	Oroitzepenrako ekintzak eta biktimen aitortza	24.500,00

2. kapituluaren barruan sartuta daude oroimen historikoa berreskuratzeko kontu-saila, bakean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituriko hezkuntza eta prestakuntza bultzatzekoa nahiz normalizazio politikoari laguntzekoa.

Programa honen barruan sartutako jardueren artean Giza Eskubideen Zinemaldiak du hedapen sozial handienetakoa. Zinemaldi hori Donostia Kulturarekin eta beste eragile batzuekin batera antolatzen da.

Giza Eskubideen Atalak urteak daramatza Berdintasun Atalarekin lanean Berdintasun Plana aplikatzeko; beraz, haren programek, gehiago edo gutxiago, badute genero ikuspegia.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Pakearen eta Giza Eskubideen proiektuetarako diru-laguntzak	50.300,00
481.03	Euskal Herriko Unibertsitateari Giza Eskubideen Ikastarorako	22.500,00
	4. kapituluaren guztizkoa	72.800,00

4. kapituluan, 50.300 euroren kontu-sail bat dago izendatua, bakearen eta giza eskubideen arloko elkarreentzako diru laguntzak ere hartzen dituena, eta hor badira berdintasun klausulak. Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitatearentzako transferentzia bat ere sartu da, Giza Eskubideen ikastarorako.

6.2.4. Kultur aniztasuna

Kultur Aniztasuna programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 343.869,06€ da 2016an, udal aurrekontuen %0,09. 2015ean, 289.839,82€-ren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuen %0,08. Kopuru absolututan, 54.029,24 euro handitu da.



Programa oso berria da, 2013an sortu baitzen Kultur Aniztasunaren Atala. Programa horren helburu nagusiak dira herritarrak sentsibilizatzea bizikidetzaren sustatzeko eta arrazakeria nahiz xenofobia ekiditeko, herritar berriei harrera egitea eta haien partaidetza soziala bultzatzea.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	205.409,06	59,73
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	70.460,00	20,49
4	Transferentzia arruntak	68.000,00	19,77
GUZTIRA		343.869,06	100,00

2. kapitulua

Kultur Aniztasuna programako 2. kapitulua 4.260 euro handitu da 2015etik 2016ra (%6,44), 66.200 eurotik 70.460 eurora pasatu baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Kultur Aniztasunaren inguruko jarduerak	65.600,00
226.99.01	Sentsibilizazio kanpainak	20.580,00
226.99.02	Donostiar hiritartasun berria	34.300,00
226.99.03	Emakumeen gune interkulturala	7.350,00
226.99.04	Parte-hartzea	3.430,00

Programak emakumeentzako partida espezifiko bat dauka, 7.350€-rena, Emakumeen Etxean topaketarako eta ahalduntzerako espazio bat dinamizatzeko, Berdintasun Sailarekin elkarlanean.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
480.01	Errefuxiatu politikoentzako laguntza	30.000,00
481.01	Kultur aniztasunari buruzko proiektuei diru-laguntzak	22.500,00
481.02	Beste diru-laguntza zuzenak	5.000,00
	4. kapituluaren guztizkoa	68.000,00

Kultur aniztasunaren arloko irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzek 22.500€-ren partida bat dute, eta berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.



6.2.5. Donostia Kultura

Donostia Kultura Donostiako Udalaren mende dagoen enpresa erakunde publiko bat da, udal politika kulturala bideratzen duena, eta herritarrei kulturarekin eta jai herrikoiekin lotutako zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie, nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpen gisa ulertuak, azken horiek. Erakundearen beste helburu batzuk dira udalerriko ondare kulturala eta artistikoa mantentzea, sormenaren eta ekoizpenaren arloko bertako kultura ekimenak babestea eta kultura anitza, irekia eta tolerantzia sustatzea, besteak beste.

Donostia Kulturaren 2016rako aurrekontua 27.696.407,22€ da, 2015ean baino 453.527,79 euro gehiago (%1,7 handitu da). Diru sarreraren atalean, Donostiako Udalaren ekarpena da diru iturririk garrantzitsuenak, 22.101.117,47 euro, eta haren atzetik daude espazioak alokatzeagatik eta zerbitzuak emateagatik ordainak eta beste erakunde publiko batzuen diru laguntzak.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
3	Tasak eta bestelako zergak	4.430.874,55	16,00
4	Zeharkako zergak	22.107.117,47	79,82
5	Ondare-sarrerak	408.415,20	1,47
7	Kapital-transferentziak	750.000,00	2,71
GUZTIRA		27.696.407,22	100,00

Donostia Kultura barneko berdintasun plan bat ezartzen ari da langileentzat. Berdintasun plan espezifiko horretaz gain, Donostiako Udalaren Berdintasunerako III. Planaren Koordinazio Batzorde Teknikoan ere hartzen du parte Donostia Kulturak. Hor egin behar dituen ekintzek zerikusia dute erakundearen jarduerarekin eta ez hainbeste langileen antolaketarekin.

Plan honen esparruan, neurri hauek hartu dira:

- » Berdintasuna bermatzeko klausulak sartzeari buruzko laguntzetan, hala jarduera artistiko-kulturaletara bideratzen direnetan nola jaiak antolatzeko ematen direnetan (danborrada, Olentzero, inauteriak eta abar). Azken horiek, batez ere danborradarako diru laguntzak, ematen den diruagatik baino gehiago nabarmentzen dira duten garrantzi sinbolikoarengatik; izan ere, tresna baliagarria dira berdintasunezko danborrada baterantz aurrera egiteko.



- » Donostia Kulturako langileei berdintasun arloko prestakuntza ematea, eta hizkuntza nahiz irudi barneratzaileen arloko prestakuntza espezifikoa ematea komunikazioaren ardura duten langileei.
- » Sariak, bekak eta abar banatzeko epaimahai paritarioak eratzea.
- » Sexuaren arabera bereizitako adierazleak sartzera, esaterako neguko ikastaroen eskaintzaren partaidetzan.
- » Emakumeen sormen artistikoa eta kulturala sustatzea eta babestea musikaren, literaturaren edo arte eszenikoen arloetan.

2014ko datuen arabera, **Donostia Kulturako bazkideak 84.023 dira, horietatik 50.310 emakumeak (%59,9) eta 33.713 gizonak (%40,1)**. Hainbat hilabeteko iraupena duten 809 ikastaroetan parte hartu dutenen artean, ia **bi herenak ziren emakumeak**. Eta liburutegietan, berriz, 2014an, lehenengoz, 5.814 bazkide egon dira izena emanda, 3.147 emakume (%54,1) eta 2.667 gizon (%45,9).

Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2013. urteko diagnostikoak dioten bezala:

“Emakumeek gehiago parte hartzen dute aisia pasiboko ikastaro eta jardueretan (ikuskitun eta zaletasun artistikoak) Emakumeek sorkuntza kultural eta artistikoko ikastaro eta fase amateurretan duten nagusitasuna apaldu egiten da maila profesionalizatuagoetan. Gizarteak ez du rol horien aldaketa bultzatzen (kristalezko sabai kulturala), eta emakumeek, jasotako sozializazioaren ondorioz, zailtasunak dituzte beren burua agente, sortzaile eta artista gisa agertzeko”.

Datuak sexuaren arabera bereizita jasotzeko ahalegina egin den arren, ez dago erregistrorik lantegiak, hitzaldiak, kontzertuak edo erakusketak egiteko kontratatu diren pertsonen sexua zein den jakiteko. Komenigarria litzateke erregistro hori sortzea, emakume gehiago kontratatzeke eta aipaturiko “kristalezko sabai kultural” hori hausteko.



Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	11.886.180,21	42,92
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	14.546.644,70	52,52
4	Transferencias corrientes	487.446,66	1,76
6	Inversiones reales	750.000,00	2,71
8	Activos financieros	26.135,65	0,09
GUZTIRA		27.696.407,22	100,00

6.2.6. Gazteria

Gazteria programa, Kultura gastu politikan sartua, 1.953.078,32€ da 2016an, udal aurrekontuen %0,52. 2015ean, 1.960.754,49 izendatu ziren kontu-sail honetarako, aurrekontuen %0,55.

Programa horren helburua da hiria erakargarria izatea haur, nerabe eta gazteentzat, kalitatezko aisialdi hezigarria eskaintzea eta gazteei lana eta etxebizitza lortzen laguntzea.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	460.345,13	23,57
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.284.753,19	65,78
4	Transferencias corrientes	119.480,00	6,12
6	Inversiones reales	73.500,00	3,76
7	Transferencias de capital	15.000,00	0,77
GUZTIRA		1.953.078,32	100,00

2. kapitulua

Gazteria programako 2. kapituluan, 18.175 euro (%1,39) gutxitu da diru izendapena 2015etik 2016ra, 1.302.928,44€-tik 1.284.753,19€-ra igaro baita.

Kontu-saila	astuaren azalpena	Zenbatekoa
226.06	Gizarte-kultur jarduerak	73.425,51
226.06.01	Informazio, aholkatze eta zabaltze zerbitzua	2.000,00
226.06.02	Gazte elkartrukeak: gazteak eta Europa	10.523,69
226.06.03	Haur eta gazte-aisialdia (denbora librea eta Gabonak)	30.766,12
226.06.04	Hedapen kulturala	7.000,00
226.06.05	Hedapen kulturala	6.500,00
226.06.06	Sustapen kulturala	16.635,70
227.04	Zerbitzu-enpresak	1.075.986,91

Gazte Informaziorako Zerbitzua, haurtxokoen eta gaztelekuen sarea, aisialdiko programak eta gazteen partaidetza dira Gazteria Atalaren jardunaren zutabeak, eta islatuta daude aurrekontuan.



2. kapituluko partida handiena haurtxoko eta gaztelekuen sarearena da (227.04); ekipamendu horiek estrategikoak dira genero ikuspegitik, aukera ematen baitute haurrekin eta gazteekin zuzenean lan egiteko eta zuzenean ezagutzeko haien behar eta interesak, hezkuntza ez-formaleko programen barruan. Espazio horiek Donostiako auzoetan banatuta daude, sare handi bat osatzen dutela, eta kanpoko kontratazio bidez kudeatzen dira. Esleitutako azken kontratuaren baldintzetan jasota zeuden berdintasuneko klausula batzuk, eta, horri esker, zentro horietako hezitzaileek berdintasun arloko prestakuntza daukate, Udalaren Berdintasun Plana ezagutzen dute eta koedukazioko jarduerak egiten dituzte haur eta gazteekin (2016an horrelako jardueretan sakontzen jarraituko dute). Hala ere, 2015eko aurrekontuan 3.000€-ren kontu-sail bat bideratu bazen ere programetan eta jardueretan indarkeria matxistari aurre egiteko, halako kontu-sailik ez da sartu 2016ko aurrekontuan.

Programa horren barruan badira aisialdi programetarako kontu-sailak ere: Gabonetakoa, hurrei bideratua, eta aisia kulturalakoa, nerabeei eta gazteei bideratua Lehenengoan, genero ikuspegia duten jarduera hezitzaileak sartu dituzte aurreko edizioetan, eta alderdi horrek iraunkorra izan behar du eskaintzan. Bigarrenean, ezinbestekoa da baliabide espezifikoak bideratzea neska gazteen kultura arloko prestakuntzara eta ahalduntzera, sormenaren eremu aktiboenetara heltzeko oztopo espezifikoak izaten baitituzte (batzuetan ohartezinak, ukiezinak direlako).

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
432.01	DK-rekin ikus-entzunezko hitzarmenatarako diru-ekarpena	2.000,00
481.01	Gazte-elkarteak	47.300,00
481.02	Haurtxokoak (udal-haurtxoko gabeko auzoetako haur-ekipamenduetarako hitzarmenak)	70.180,00
4. kapituluaren guztizkoa		119.480,00

4. kapituluan gazte elkarteentzako diru laguntzak sartuta daude (481.01), eta horiek berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.



6. eta 7. kapituluak

6. kapitulan, 73.500€-ren kontu-sail bat izendatu da gazteentzako eta haurrentzako ekipamenduetarako, eta 7. kapitulan, 15.000€-ren kontu-sail bat sartu da, gazteentzako lokaletarako aurreko jakinarazpenak egiteko.

6.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak

6.3.1. Hiri mugikortasuna

Hiri Mugikortasuna programa, *Herri segurtasuna eta mugikortasuna gastu* politikan sartua, 9.034.221,83€ da 2016an, udal aurrekontuen %2,39. 2015ean, kontu-sail honetarako 8.414.590,65€ izendatu zituzten. Aurreko urtean baino 619.631,18€ gehiago; horren arrazoa da inbertsio kapitulua asko igo dela.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	5.098.851,35	56,44
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.887.774,34	20,90
4	Transferentzia arruntak	10.500,00	0,12
6	Inbertsio errealak	2.037.096,14	22,55
GUZTIRA		9.034.221,83	100,00

2. kapitulua

2016an, Hiri Mugikortasuna programako 2. kapitulurako 1.887.774,34€ izendatu dira. 2015ean, 1.901.035,16€ ziren.



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste hainbat gastu	145.516,00
226.99.01	Beste hainbat gastu	3.075,00
226.99.03	Bizikleta feria	5.000,00
226.99.05	Mugikortasun jasangarriaren astea	5.682,00
226.99.07	Eskola bidea	33.759,00
226.99.08	CIVITAS	18.000,00
226.99.11	CLA proiektua	30.000,00
226.99.12	SWITCH proiektua	30.000,00
226.99.13	Lighthouse-replicate	10.000,00
226.99.14	Sumps-Up	10.000,00

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Bizikletaren erabilpena sustatzeko Kalapie-ri diru-ekarpena	3.000,00
481.02	Bizikleta Behatokirako Cristina Eneari diru-ekarpena	7.500,00
	4. kapituluaren guztizkoa	10.500,00

6. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
601	Erabilera orokorrerako inbertsioak: azpiegitura eta hirigintza	
601.01	Askatasun Hiribide inguruko birmoldaketa	600.000,00
601.02	Urbietta-San Martín (merkatu ingurua)	50.000,00
601.04	Bidegorri sarean aktuzioak	400.000,00
601.05	Bidegorri sarearen berantolatzea	50.000,00
601.06	Calzada Vieja de Ategorrieta ejekuzioa eta hobekuntza	200.000,00
601.08	Trafikoa lasaitzeko eta oinezkoentzat egiteko aktuzioak	300.000,00
601.08	Trafikoa lasaitzeko eta oinezkoentzat egiteko aktuzioak	300.000,00
623	Zerbitzuetarako inbertsioak: makineria, instalazioak eta tresneria	
623.01	Bidegorri sarerako ekipamenduak	10.000,00
623.02	Morlanseko bidegorriko elektrizitate instalazioen eta automatismoen zaharberritzea	27.096,14
623.03	Atal operakorrarentzako ekipamendua	50.000,00
623.04	Aparkaleku eta hiriaren sarbideen gaineko kontrolerako datuen bateratze sistema	350.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	2.037.096,14

Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoaren arabera, emakumeak gehiago mugitzen dira oinez. Hainbat azterlanek erakutsi dute mugikortasun sostengagarria lagungarri gertatzen dela kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako. Mugikortasun



sostengagarria harago doa, eta hurbileko zerbitzuak behar ditu auzoetan (eskolak, haur eskolak, osasun zentroak, dendak eta abar), jendeak joan-etorri laburrak egiteko, ahal dela oinez. Ikuspegi horretatik, oso interesgarria da eskola bidea, Mugikortasun zuzendaritzak sustatutako programa; izan ere, neska-mutilen autonomia sustatzen du etxetik eskolara taldean joateko, boluntarioen laguntzaz. Programa honetarako 33.759,00 euroren kontu-sail bat izendatu da (226.99.07).

Bizikletaren erabilerari buruzko datuei begiratuta, badago halako oreka bat emakumeen eta gizonen artean (nahiz eta egindako azken azterketetan emakumeak ez diren inoiz izan %40 baino gehiago), baina ez da beti hala, baldin eta aldeei edo bizikletazaleen adinari erreparatzen badiegu. Emakumeek nahiago dituzte erdialdeko guneak bizikletaz ibiltzeko, eta ez hainbeste kanpoko aldeak. Gainera, 60 urtetik gorako emakumeen artean bizikletaren erabilerak nabarmen egiten du behera.

Bizikletak alokatzeko Dbizi sistema publikoa duela gutxi aldatu da, eta gaur egun bizikleta elektrikoak aloka daitezke. Zerbitzuan izena eman dutenen % 43 emakumeak dira, eta %57 gizonak. Hala ere, ez daukagu zerbitzuaren erabilera errealari buruzko daturik.

Gipuzkoako Garraio Agintaritzak Donostiari buruz berriki emandako datu batzuen arabera, emakumeek askoz gehiago erabiltzen dute autobusa gizonak baino. Hala bada, urtebetean txartel arruntarekin egindako 13.778.560 bidaien % 70 baino gehiago emakumeek egindakoak izan dira, eta % 28,79 bakarrik egin dituzte gizonak. Ehunekoak orekatuagoak dira beste txartel modalitate batzuetan, hala nola gazteentzako txartelean: bidaien % 55 emakumeei dagozkie, eta % 44 gizonari. Hala eta guztiz ere, emakume gazteek gizonak baino 280.364 bidaia gehiago egin dituzte; mutilen artean motoa ohikoagoa izatea izan daiteke alde hori azaltzeko arrazoia. Txartel sozialean ere alde handiak daude (%63 emakumeak, %37 gizonak), baina ez dira txartel arrunteko aldeak bezain nabarmenak. Hori guztia kontuan hartuta, baieztatu dezakegu emakumeen eta gizonen mugitzeko moduan desberdintasunak daudela, sexuaren araberako lan banaketatik eratorriak. Hala bada, adin ertaineko gizonak nagusiki ibilgailu pribatua erabiltzen dute ordaindutako lanarekin eta aisiarekin lotutako joan-etorrietarako, eta emakumeak, aldiz, batik bat oinez edo garraio publikoan mugitzen dira, gehiagotan eta bide laburragoetan, zaintzarekin, harreman pertsonalekin eta ordaindu gabeko lanarekin lotutako arazoengatik.



Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak aintzat hartuta, komeni da gogoan edukitzea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa ekarriko diela emakumei eta horiek zaintzen dituzten pertsoneri: adingabeak eta dependentzia duten pertsonak. Aldiz, aparkalekuetan edo ibilgailu pribatuen joan-etorriak hobetzeko proiektuetan inbertituz gero, onuradun nagusiak gizonak izango dira.

Era berean, kontuan hartu behar dugu espaloian eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen dizkietela oinezkoen, batez ere ahulenei (adinekoak eta haurrak), eta arazoak sortzen dituztela oinezkoen eta txirrindularien artean. Motordun trafikotik hurbil dauden babes gutxiko bidegorriak ez dira oso erakargarriak emakumeentzat, eta arriskutsuagoak dira txirrindulari guztientzat; beraz, motordun trafikoari espazioa kentzen badiote ere, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da, alegia, trafiko horren abiadura moteltzen lagunduko duten eta oinezkoen pasabideetan ahalik eta eragozpen gutxien sortuko duten bidegorrietan. Era berean, interesgarria izango litzateke auto gidarientzako sentsibilizazio kanpainak egitea autoen eta bizikleten arteko bizikidetza hobea sustatzeko, eta emakumeak, bereziki 60 urtetik gorakoak, bizikleta erabiltzera animatzea, bizikleta elektrikoaren alokairu publikoko sistemari buruzko ikastaroak eta erakustaldiak eginez.

Azkenik, eredu maskulinoa orokortzea eragotzi nahi bada (hau da, kasu honetan, emakumeek gizonen garraio ohiturak hartzea) eta mugikortasun sostengagarriaren aldeko apustua egin nahi bada, aztertu egin behar dute nola erakar ditzaketen gizonak garraio publikoaren sarera, eta, hortaz, sentsibilizazio kanpainak, halakorik bada, gizonengana bideratuta egon beharko dute. Bestalde, hiriko trafikoari eta mugitzeko moduei buruzko edozein azterlanek kontuan hartu behar luke genero ikuspegia, arlo horretan desberdintasun handiak baitaude, deskribatu dugunez.



6.4. Jarduera ekonomikoak

6.4.1. Proiektuak eta obrak

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	1.908.723,58	35,02
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	58.121,98	1,07
6	Inbertsio errealak	3.483.812,77	63,92
GUZTIRA		5.450.658,33	100

Hirian segurtasunik eza sentitzen duten emakumeen kopurua gizonena halako bi da, eta horrek eragina dauka emakumeen mugimendu askatasunean. Orain dela bi urtetik, Hiri Azpiegituren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak hiriaren osaera eta mugikortasuna genero ikuspegitik aztertzen duen sailarteko udal talde batean parte hartzen du, emakumeen ustez arriskutsuenak diren hiriko guneeetan arrisku hori desagerrarazteko edo arintzeko. Hala ere, ez da diru izendapenik egin programa honetako 6. Kapituluan, eta bai berdintasunerako aurrekontu espezifikoan. Gastu horren xedea eta izaera kontuan hartuta eta genero ikuspegiaren zeharkakotasun printzipioa aintzat hartuta, inbertsio horiek aurrekontu programa honetan jaso beharko lirateke, eta ez Berdintasun Atalarenean.

6.4.2. DBUS

Dbus enpresa publikoaren 2016rako aurrekontua 34.974.052,43€ da, 2015ean baino 1.162.122,65 euro gehiago (%3,44 igo da).

Diru sarreraren atalean, zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak dira sarrerarik garrantzitsuenak (18.648.660,00€), eta, atzetik, Udalaren ekarpena (13.886.050,73 euro).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
3	Tasak eta bestelako zergak	20.240.945,20	57,87
4	Transferentzia arruntak	13.986.417,23	39,99
5	Ondare-sarrerak	500,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	459.681,00	1,31
8	Finantza-aktiboak	286.509,00	0,82
GUZTIRA		34.974.052,43	100,00



Dbus enpresa publikoa II. Berdintasun Plana ezartzen ari da. Plan horrek langile taldearen osaerari eragingo dio, eta haren xede nagusia da gidarien artean emakume gehiago izatea. Aurrerapen txikiak lortu dituzte helburu horretan. 2004tik 2015era, emakume gidarien ehunekoa %4,67tik %8,8ra igo da. Gaur egun, Dbus-eko gidarieratik 34 emakumeak dira eta 350 gizonak.

6.5. Jarduera orokorrak

6.5.1. Herritarren partaidetza

Administrazio Orokorra gastu politikan sartutako **Herri Partaidetza** programarako 1.144.147,27€ izendatu dira 2016an, udal aurrekontuen %0,30. 2015ean, kontu-sail horretarako 880.025,18€ izendatu ziren, aurrekontuen %0,25. Igoera horren arrazoia da hainbat kontu-sail sartu direla 6. kapituluan (inbertsioak).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	432.822,27	37,83
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	436.700,00	38,17
4	Transferentzia arruntak	74.625,00	6,52
6	Inbertsio errealak	200.000,00	17,48
GUZTIRA		1.144.147,27	100,00

2. kapitulua

Herri Partaidetza programako 2. kapituluko izendapena 103.500 euro haunditu da 2015etik 2016ra (%31,06), 333.200 eurotik 436.700 eurora igaro baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste hainbat gastu	401.000,00
226.99.02	Lurraldeko partaidetza	113.000,00
226.99.03	Asoziazionismoaren sustapena	28.000,00
226.99.04	Udal-transbersalitatea partaidetzarako	28.000,00
226.99.05	Sektore-biztanleria partaidetza	82.000,00
226.99.06	Sektore-tematika partaidetza	20.000,00
226.99.08	Auzolana	10.000,00
226.99.09	Hirritarren galderak	30.000,00
226.99.10	Aurrekontu parte-hartzaileak	30.000,00
226.99.11	Lekuko funtzionamendua ekialdeko distritoa	60.000,00



Herri Partaidetza Bulegoak, programaren arduradunak, kontu-sail espezifikoak izendatu izan ditu aurreko urteetan berdintasun ekintzetarako, eta modu aktiboan laguntzen du Berdintasunerako III. Plana ezartzen.

Bulegoak abian jarritako ekintza batek zerikusia du herri partaidetzako udal kontseiluekin. Kontseiluak partaidetza organoak dira, Udaleko zenbait sailek kudeatzen dituztenak esku hartzeko arloaren arabera (ingurumena, gizarte ekintza, berdintasuna, lankidetzak, eta abar), eta haietan politikari eta teknikari arduradunek harreman zuzena dute dagokion arloan jarduten duten herritar erakundeetako ordezkariekin. Emakumeek eta gizek udal kontseiluetan duten partaidetzari buruzko datuak bildu ditu Auzoak eta Herritarren Partaidetza Bulegoak, eta berdintasuneko klausulak ezarri ditu kontseilu horien oinarritzko araudi berrian.

Pentsatzekoa da bulegoak aurrerantzean ere lagunduko duela berdintasun ekintzak martxan jartzen.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Diru-laguntzak eta hitzarmenak	56.625,00
481.02	Zubietako Batzordeari transferentzia	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseiluari diru-laguntza	7.000,00
481.05	Osteguna / Irale auzo-elkarteei diru-laguntza	3.000,00
481.06	Oleta auzo-elkarteei diru-laguntza	3.000,00
	4. kapituluaren guztizkoa	74.625,00

4. kapituluan sartu dira irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzen deialdi bakarra, partaidetza proiektuetarako diru laguntzak eta lurralde izaerako elkarten gastu korranteetarako diru laguntzak.

6. kapitulua

6. kapituluan, 200.000 euro sartu dira zerbitzuei lotutako inbertsioetarako: 150.000 euro ekialdeko barrutiko lokalerako eta 50.000 euro auzo elkarteentzako lokalak prestatzeko.



7. Genero eragina sakonago ebaluatzeko irizpideak

- » Aurrekontu programen azterketa progresiboki handitzea eta genero ikuspegitik jarduera garrantzitsua duten udal enpresa eta erakunde autonomoak ere aintzat hartzea, hala Donostiako Sustapena SA, Musika eta Dantza Eskola eta Kiroletako Udal Patronatua.
- » **Aurrekontu programa bakoitzaren genero adierazleen identifikazioa** hobetzea, atal, enpresa eta udal erakundeek datu horiek jaso eta Berdintasun Bulegoari eman diezazkieten eta beren aurrekontuak ikuspegi hori kontuan izanda egin ditzaten.
- » **Udal inbertsioen analisisan sakontzea.** Inbertsioen programak genero aldetik nola eragiten duen behar bezala aztertzeko, informazio zehatzagoa izan behar dugu balioetsi eta lehenetsi diren inbertsioen inguruan, eta inbertsio bakoitza zertan datzan jakin behar dugu.
- » Azterlan hau baliabide publikoen erabilera aldetik giltzarri diren beste bi analisirekin osatzea: **kanpoko kontratazioek eta langileen kontratazioek genero aldetik duten eraginaren balioespena.**